

---


## Ozpin-euli heldu baten garun osoaren mapa egin dute

Ozpin-euli heldu baten garun osoaren kartografia egin dute: 140.000 neurona eta 50 milioi konexio baino gehiago. [Nature aldizkarian](#) eman dute lorpenaren berri, 9 artikulutan. Garunaren funtzionamendua eta garuneko gaixotasunak hobeto ikeritzeko balioko du.

Mapa eraikitzeko, *Drosophila melanogaster* eme baten burmuinetik hartutako 21 milioi irudi erabili dituzte. Eta, adimen artifizialeko eredu batekin, irudi horiekin 3Dko mapa bat egin dute.

300 bat zientzialariz osatutako [Flywire](#) taldeak egin du mapa. Ikertzaile batzuek konexioak aztertu dituzte, eta beste batzuek 8.400 zelula-mota baino gehiago identifikatu dituzte, horietatik 4.581 berriak. Bestalde, ikusi ahal izan dute neurona jakin batzuen arteko konexioek nola eragiten duten mugimenduan edo garuneko eskualdeen arteko komunikazioan.

Datu-base osoa modu irekian eta doan jarri dute, erabili nahi duten ikertzaile guztien eskura. ●



ARG.: Tyler Sloan and Amy Sterling for FlyWire, Princeton University, (Dorkenwald *et al.*, *Nature*, 2024)